

**LEGELARI GAZTEENTZAKO "ADRIÁN CELAYA" SARIAREN HAMAIKAGARREN
EDIZIOA**

ACADEMIA VASCA DE DERECHO - ZUZENBIDEAREN EUSKAL AKADEMIA

SARIAREN OINARRIAK

Legelari gazteen artean, Euskal Zuzenbidearen ikerketa eta zabalkundea sustatzeko helburuarekin, eta aukeratu eta saritutako lanak zabaltzeko helburuarekin ere, Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademiak legelari gazteentzako "Adrián Celaya" Sariaren hamaikagarren ediziorako deialdia egiten du, honako oinarri hauen arabera:

1. **PARTAIDEAK:** *Lehiaketa 2001. urteko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotako edozein legelariri irekita dago, zuzenbidean lizentziadun edo gradudunak direnei, bai eta Zuzenbidean lizentziaduna izateko edota Zuzenbidean graduduna izateko azken ikasturtean daudenei ere.*
2. **LANEN GAIAK:** *Lanak izango dira euskal zuzenbide pribatu zein publikoaren arloko edozein azterketari buruzkoak; jatorrizkoak eta argitaragabekoak eta beste lehiaketaren batean inoiz aurkeztu gabeak.*
3. **MODALITATEAK:** *Sariak lau modalitatetan banatuko dira, accesit-ik gabe: bi euskal zuzenbide pribatuaren arloan, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, eta beste bi euskal zuzenbide publikoaren arloan, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.*
4. **FORMAZKO BETEKIZUNAK:** *Lanak euskaraz edo gaztelaniaz idatziko dira, DIN-A4 formatuan, 12 puntuko Times New Roman letra-mota erabiliko da, bat eta erdiko lerro-tartea utzita, alderdi batetik idatzita; lanen luzera gutxienez 30 orrialde eta gehienez 50 orrialdekoa izango da. Word formatuko euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira. Halaber, lan bera ezin izango da bi hizkuntzetan aurkeztu.*

Lanaren lehen orrialdean honako datu hauek adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak; jaioteguna, naziotasuna, bizilekua, helbidea, telefonoa (faxe edo helbide elektronikoa, hala denean) eta Zuzenbidean lizentziaduna izateko edo gradu ikasketen azken ikasturtea zein unibertsitatean egin duen edota egiten ari den eta unibertsitate hori, eta lana zein modalitaterako aurkeztuko duen.

5. **AURKEZTEKO EPEA:** *Onarpen-epea gehienez ere, 2026. urteko uztailaren 17ko eguerdiko hamabi orduak izango da, eta aurkezteko toki bezala, lanak posta elektronikoaren bidez ere bidal daitezke, betiere aipatu epean, helbide elektronikoa honetara: secretaria@avd-zea.com.*
6. **EPAIMAHAIA ETA SARIAREN ERABAKIA:** *Epaimahaia gehienez bost kidek osatuko dute eta Akademiaren Zuzendaritza Batzak izendatuko du. Epaimahai horren erabakiak irmoak izango dira eta helegiterik gabekoak.*

Saria hutsik gera daiteke, kasuan kasuan.

Erabakia, lehiaketa itxi eta hurrengo lau hilabeteko epean hartuko da, gehienez. Epaimahaiaren erabakia zuzenean jakinaraziko zaio saridunari eta Akademiaren web orrian ere argitaratuko da.

7. *SARIA: Sariaren diru-kopurua 500 eurokoa izango da, modalitate eta hizkuntza bakoitzari dagokionez. Sariak Akademiak egingo duen egintza esanguratsuan emango dira.*

8. *ARGITALPENA: Akademiak eskubidea izango du saritutako lana argitaratzeko, gehienez bi urteko epean, erabakia hartu denetik zenbatzen hasita; ez du, aldiz, konpromisorik hartzen, saririk jaso ez duten lanak itzultzeko, baina egileek eurek zuzenean, edota eurak baimendutako beste pertsonen batzuen bitartez, jaso ahal izango dituzte lanok, erabakia jakinarazi eta hurrengo sei hilabeteko epean.*

9. *AZKEN XEDAPENA: Akademiaren Zuzendaritza Batzak hala erabakita, edozein unetan aldatu ahal izango dira, modu arrazoituan, sari honen oinarriak. Aldaketaren ondoriozko oinarriak Akademiaren web orrian argitaratuko dira eta indarrean egongo dira ordurako aurkeztu diren egile eta lan guztientzat, bai eta data horretatik aurrera aurkez daitezkeenentzat ere.*